

ONEEK

ALA

ONEIK?

ZER aldizkariko 12'garren zenbakian ONEEK ALA ONEIK idazlantxo interesgarria irakurri dot. Puxana jaunaren euskal-arlo au oso garrantzi andikoa cia, izan be, bizkaiera osoturako bide argia darabil-eta.

Oraingoan be sarri erabilten eta idazten dan gaia ekarri dausku. Berak diñoanez, «izenorde erakuslea batena danean, ez daukagu alderik», bizkaitar guztiok bardin erabilten eta idazten dogu: *Au* etorri da, *orrek* egin dau, *arek* jan dau. Alan be, «askorena danean edo bat baiño geiago adierazoten dauanean», bizkaierazko idazleak ez dabe guztiak bardin idazten: batzuek *oneik*, *orrek* eta *areik* idazten dabe; beste batzuek *oneek*, *orreek* eta *areek*, eta beste batzuek *onek*, *orrek* eta *arek*, singularrean lez. Eta «emen ez daukagu batasunik bizkaieraz» diño egoki Puxana adiskideak. Alantxe da.

Eta gero beste au: «Nik neuk ez dodala *oneik*, *orrek*, *areik* eta abar errian entzun». Azken onetan ez nator bat Puxana jaunagaz. Egia esan, nik nire idazkeran azken-orok aukeratu ba'dodaz (*oneik*, *orrek* eta *areik* pluralean), singularrekoakaz ez naasteko izan da, Azkue'k «con distinta entonación» esaten dirala esanarren be. Eta erriak, ain zuzen be, erabilten dauz, obe ez! (bestela ez nebazan aukeratuko). Begira Orixe jaunak egin eban *Erizkizundi Irukoitza'k* Bizkaia'n jaso ebana:

Estos = onek: 70 erritan
» = ne

Estos = onek: 70 erritan
» = oneek: 3 »
» = oneik: 28 »

Esos = orrek: 69 erritan
» = orreek: 5 »
» = orreik: 28 »

Aquellos = arek: 49 erritan
» = areek: 2 »
» = areik: 8 » (8 irar - utsa cia, urrean, 28 idatzi bearrean)

Beraz, 28 erritan oneik, orreik eta areik erabilli ezkeru, naikoa zabaldua dagozala esan daikegu.

Oneek, *orreek* eta *areek*, barriz, askoz gutxiagotan: 3, 5 eta 2 erritan, Mogel izan zan inguruetan, ain zuzen be. Orrexegaitik erabilli ebazan, urrean.

Ori orrela izan ezkeru, bidezkoa da asko di-ranetan oneintzat, orrein tzat eta areintzat esatea (para estos, esos, aquellos). Baiña *onekana*, *orrekana* ta *arekana* (*i* bagarik), bat danean *onegana*, *orregana* ta *aregana* da-ta.

Argi geratzen da?